

## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure enpresarentzat funtzeskoa da gure bezeroekiko harremana eta euren zoriontasuna gure proiektuarekiko. Betaurrekoak direla eta, laguntza pertsonala beharrezkoa da, betaurrekoak erosteko prest dagoen bakoitzak laguntza izateko eta gomendioak ere jasotzeko langileen partez. Baina guk optikei salduko diegunez, haiekin harreman konfiantzazkoa eta leiala izan behar du. Gure betaurrekoen esentzia ondo komunikatzea beharrezkoa izango zaigu, optikek egingo bait dute zubi lanak gu eta azken bezeroen artean. Dana eta guztiz ere, munduarekin konektatuta egoteko, webgunea izateaz aparte, sare sozialetan ere aurkitu ahal gaitue; Instagram : @leialty\_ eta Twitter: @leialty. Eta sare sozial hauen bitartez gure azken bezeroarekin erlazio zuzena lortu beharko dugu.

Gune haietatik euren dudak, galderak eta abar galdetu ahal dizkigute eta euren argazkiak gure betaurrekoekin gugaz eta mundu osoagaz partekatu.

Horretaz aparte, salmenta osteko serbitzu batzuk baditugu. Haien artean, urte eta erdiko garantia bat eta hiru motatako seguru bat behar eta nahi ezberdintzen araberakoa. Horrela, betaurrekoak saldu ostean, kontsumitzaileekin harreman estuagoa izatea lortzen dugu eta horrela haiek pozik egotea gure produktuagaz.